



Herriko gune arautuetan ibilgailuak aparkatzean jabego publikoa erabili edo aprobetxatzeari buruzko ordenantza (TAO)

Udalak, bere eskumenen barruan, herritarren beharrak betetzen lagungarri izan daitezkeen era guztietako ekintzak bultzatu eta nahi hainbat herri-zerbitzu eskaini ditzake.

Aparkamendu arloan dagoen eskariari erantzun nahi izateagatik, ingurumenaren kalitatean duen zuzeneko eraginagatik eta herri garraioen eta oro har trafikoaren arintasunean duen ondorioagatik, aparkamendua arautzeko orduan, beharrak, eskura dauden espazioen erabilera eta diru aldetik horrek dakartzkien ondorioak herritar guztien artean zuzen banatzeko moduko irizpideak kontuan hartzen saiatu behar du.

Hiriko aparkamendu zerbitzua hobeto arautzearren ondorengo arauak emango dira:

1. artikulua.

Ordenantza honen xedea Udalak araututako hiriko aparkamendu zerbitzurako arauak ezartzea da.

2. artikulua.

Udalak araututako aparkamendu sistema Udalaren herri zerbitzutzat joko da.

3. artikulua.

Ordenantza honek araututako sektoreak honakoak dira:

1. sektorea: Gudarien plaza.
2. sektorea: Merkatuko aparkalekua.
3. sektorea: Nafarroa plaza.
4. sektorea: Calbeton Zumardia, Markiegi, Marinel, Bastinuixa eta Montreal.
5. sektorea: Artzabalgo aparkalekua.
6. sektorea: Herri gunea - Angulero, Astillero, Maxpe, Agirretxe, Mogel, Elizburu, Itziar bidea, Latzurregi, San Josepe, Osio, Ifar kale, Itsas-Begi,

Ordonnance réglementant l'utilisation privative ou l'utilisation spéciale du domaine public communal par le stationnement de véhicules dans des zones réglementées de la ville (OTA).

La municipalité, dans le cadre de ses compétences, peut promouvoir toutes sortes d'activités et fournir tous les services publics qui contribuent à satisfaire les besoins des citoyens.

Par conséquent, afin de répondre à la demande de stationnement, ainsi qu'à son influence évidente sur la qualité de l'environnement et ses répercussions sur la fluidité des transports publics et de la circulation en général, la réglementation du stationnement doit être traitée selon des critères de répartition équitable des besoins, d'utilisation des espaces disponibles et de conséquences économiques pour les citoyens.

Afin de mieux réglementer le service public du stationnement, les normes suivantes sont édictées :

Article 1.

La présente ordonnance a pour objet de fixer les règles du service public du stationnement réglementé.

Article 2.

Le système de stationnement réglementé communal est considéré comme un service public municipal.

Article 3.

Les zones réglementées par la présente ordonnance sont les suivantes :

- Zone 1. Gudarien plaza.
- Zone 2. Parking Mercado.
- Zone 3. Nafarroa plaza.
- Zone 4. Alameda Calbetón, Markiegi, Mariñel, Bastinuixa, Montreal.
- Zone 5. Parking Artzabal.
- Zone 6. Zone urbaine- Angulero, Astillero, Maxpe, Agirretxe, Mogel, Elizburu, Itziar bidea,

Hondartza eta Marinel-Arrantzale kaleak, Miramar.

7. sektorea: Alde Zaharra – Foruen plaza, Plaza zaharra, Ifar kale, Itur kale, Lersundi, San Roke, Ostolaza, Portu eta Sokagin kaleak.

4. artikulua.

4.1.- 1. sektorean asteko egun guztietan 09:00etatik 20:00etara, urte osoan, arautuko da ibilgailuen aparkamendua, larunbat arratsalde (13:00etatik aurrera), igande eta jaiegunetan izan ezik.

≥ 5,5 m-ko ibilgailuak edo ibilgailu taldeak debekatuta egongo dira, urte osoan.

4.2.- 2. sektorean horrela arautuko da ibilgailuen aparkamendua:

- Neguan: aste osoan zehar 09:00etatik 20:00etara, larunbat arratsalde (13:00etatik aurrera), igande eta jaiegunetan izan ezik.
- Udan: aste osoan zehar, 09:00etatik 20:00etara.

Ordenantza honen ondorioetarako, Negu garaitzat urriaren 1etik apirilaren 30era bitarteko aldia hartuko da; eta uda garaitzat maiatzaren 1etik irailaren 30era bitartekoa.

≥ 5,5 m-ko ibilgailuak edo ibilgailu taldeak debekatuta egongo dira, urte osoan.

4.3.- 3. eta 4. sektoreetan horrela arautuko da ibilgailuen aparkamendua:

- Maiatza: larunbat, igande eta jaiegunetan 09:00etatik 20:00etara.
- Ekaina, uztaila, abuztua eta iraila: aste egun guztietan 09:00etatik 20:00etara.

≥ 5,5 m-ko ibilgailuak edo ibilgailu taldeak debekatuta egongo dira, urte osoan.

4.4.- 5. sektorean horrela arautuko da ibilgailuen aparkamendua: Urte osoan: doan eta denbora mugarik gabe.

4.5.- 6. sektorean horrela arautuko da ibilgailuen aparkamendua: Maiatza, ekaina, uztaila, abuztua eta irailean, asteko egun guztietan, 24 orduz.

≥ 5,5 m-ko ibilgailuak edo ibilgailu taldeak debekatuta egongo dira, urte osoan.

4.6.- 7. sektorean horrela arautuko da ibilgailuen sarbidea: Urte osoan: astelehenetik ostiralera

Latzurregi, San Josepe, Osio, Ifar kale, Itsas-Begi, Hondartza, Mariñel-Arrantzale et Miramar.

Zone 7. Vieille ville- Foruen plaza, Plaza zaharra, Ifar kale, Itur kale, Lersundi, San Roke, Ostolaza, Portu et Sokagin.

Article 4.

4.1.- Zone 1, le stationnement de véhicules sera réglementé tous les jours de la semaine de 9 h à 20 h, sauf le samedi après-midi (à partir de 13 h), le dimanche et les jours fériés.

Les véhicules ou l'ensemble des véhicules ≥ 5,5 m seront interdits toute l'année.

4.2.- Zone 2, le stationnement des véhicules sera réglementé :

- Hiver : Tous les jours de la semaine de 9 h à 20 h, sauf le samedi après-midi (à partir de 13 h), le dimanche et les jours fériés.
- Été : Tous les jours de la semaine de 9 h à 20 h.

Aux fins de la présente ordonnance, il faut entendre par saison hivernale la période allant du 1er octobre au 30 avril ; et par saison estivale, la période allant du 1er mai au 30 septembre.

Les véhicules ou l'ensemble des véhicules ≥ 5,5 m seront interdits toute l'année.

4.3.- Zones 3 et 4, le stationnement des véhicules sera réglementé :

- Mois de mai : tous les samedis, dimanches et jours fériés de 9 h à 20 h.
- Mois de juin, juillet, août et septembre : tous les jours de la semaine de 9 h à 20 h.

Les véhicules ou l'ensemble des véhicules ≥ 5,5 m seront interdits toute l'année.

4.4.- Zone 5, le stationnement sera réglementé comme suit : toute l'année, gratuit et de durée illimitée.

4.5.- Zone 6, le stationnement des véhicules sera réglementé comme suit : mai, juin, juillet, août et septembre, tous les jours de la semaine, 24 h.

Les véhicules ou l'ensemble des véhicules ≥ 5,5 m seront interdits toute l'année.

4.6.- Zone 7, le stationnement des véhicules sera réglementé comme suit : toute l'année, de lundi



08:00etatik 13:00etara, larunbatetan 08:00etatik 12:00etara, eta igande eta jaiegunetan itxita.

5. artikulua.

Ordenantza honetan txartel mota desberdinetarako ezarritakoa alde batera utzi gabe, adierazitako tokietan aparkatzeko, erabiltzaileek beharrezko aparkaleku-tiketa hartu beharko dute horretarako ipiniko diren makinetan. Udalak onartutako prezioetan eskuratu ahal izango dira.

Ordenantza hau horrela aplikatuko zaie motorrei: motorrei egokitutako guneetan dohainik eta denbora mugarik gabe aparkatu ahal izango dute. Egokitutako gune hauetan lekurik ez bada, aparkaleku arruntak erabili ahal izango dituzte, gune bakoitzean dagokion tasa ordainduta eta denbora mugak errespetatuta, gainontzeko ibilgailuek bezala.

Sidecar-ak eta atzealdean 2 gurpil dituzten motorrak ibilgailu kontsideratuko dira, ezingo dute motorrentzat egokitutako guneetan aparkatu

5.1.- 1. sektorean 30 minutuko aparkaldia egin ahal izango da dohainik.

5.2.- 2. sektorean 2 gune bereiziko dira:

- Aparkaldi luzeko eremua: urte osoan zehar bertakoen txartela duten ibilgailuentzat izango da, dohainik eta denbora mugarik gabe.
- Aparkaldi motzeko eremua: gehienez 3 orduko aparkaldia baimenduko da eta erabiltzaile guztiek txartela atera beharko dute. 3 orduko iraupena ez da egun batetik bestera igaroko, eta tiketa egun berean baliogabetuko da.

Gune horretan aparkatzea doakoa izango da bertakoen eta udatiarraren txartela duten ibilgailuentzat. Hala ere, 09:00etatik 18:00etara dagokion tiketa atera beharko dute

à vendredi de 8 h à 13 h, samedi de 8h à 12 h, dimanche et jours fériés fermée à la circulation.

Article 5.

Sans préjudice des dispositions de la présente ordonnance pour les différents types de cartes, pour stationner dans les zones délimitées, les usagers devront se munir du ticket de stationnement correspondant, délivré par l'horodateur, selon les prix définis par délibération du conseil municipal.

Cette ordonnance sera appliquée aux motos comme suit : elles pourront stationner gratuitement et sans limite de temps sur les emplacements qui leur sont réservés. En cas de manque de place sur ces emplacements, elles pourront utiliser les stationnements conventionnels, en payant le tarif correspondant à chaque zone et en respectant la limitation horaire, de la même manière que les autres véhicules.

Les sidecars et les motos avec 2 roues à l'arrière sont considérés comme véhicules, ils ne peuvent pas stationner sur les emplacements pour les motos.

5.1.- La durée de stationnement est fixée à 30 minutes, gratuitement, dans la zone 1.

5.2.- La zone 2 est divisée en deux parties :

- Zone de stationnement longue durée : gratuit et sans limite de temps pour les véhicules munis d'une carte de résident tout au long de l'année.
- Zone de stationnement de courte durée : une période de stationnement maximale de 3 heures sera autorisée et tous les usagers devront obtenir un ticket. Pendant les 3 heures de stationnement, il n'y aura pas de pause journalière et le ticket sera annulé le jour même de son émission.

Le stationnement dans cette zone sera gratuit pour les véhicules munis d'une carte de résident ou de vacancier. Toutefois, entre 9 h et 18 h, ils devront obtenir le ticket

eta aparkaldia ezin izango da 3 orduetik gorakoa izan.

5.3.- 3. eta 4. sektoreetan tiketak 30 minutuko frakzioetan lortu ahal izango dira, gehienez 5 orduz.

Bertakoen eta udatiarren txartela duten ibilgailuek 3. sektorean egun osoko txartela eskuratu ahal izango dute, eta 4.ean dohainik eta denbora mugarik gabe aparkatu ahal izango dute.

5.4.- 5. sektorean doan eta denbora mugarik gabe aparkatu ahal izango da.

Autokarabanez gehienez 72 orduko egonaldia egin ahal izango dute. Denbora-muga hori ez zaie aplikatuko dagokion egoiliar-txartela duten autokarabanei.

Karabanak aparkatzea debekatuta egongo da, garraiatzen dituen ibilgailuari lotuta daudenean izan ezik (hanka egonkortzailerik jarri gabe).

5.5.- 6. sektorean bertakoen txartela duten ibilgailuak baimenduko dira, baita txartel bereziak (lan-txartela, irakasle txartela, gremioen aldi baterako baimen-txartela, ...) dituztenak ere, denbora mugarik gabe eta doan.

Uztailean eta abuztuan, eskoletako patioetan, bertakoen eta udatiarren txartela duten ibilgailuak baimenduko dira, doan eta denbora mugarik gabe.

5.6.- 7. sektorean zamalanetarako ibilgailu baimenduak, mugikortasunagatik edo irisgarritasunagatik baimendutako herritarren ibilgailuak eta gremioen ibilgailuak (aldi baterako edo beharra denean) izango dute sarbide eskubidea, aurrez Udaltzaingoa baimena eskatuta.

6. artikulua.

Txartela ibilgailuaren haizetakoaren eskuineko behealdean ipini beharko da, kanpotik erraz eta ongi ikusteko moduan. Txartela kristalean itsatsita egotea ezinbestekoa da, bestela, ez du baliorik izango.

7. artikulua.

Aparkamenduaren iraupena ez da aparkatze-tiketean adierazitakoa baino luzeagoa izango.

correspondant et la durée de stationnement ne pourra pas excéder 3 heures.

5.3.- Dans les zones 3 et 4, les tickets peuvent être obtenus pour une durée de 30 minutes, jusqu'à un maximum de 5 heures.

Dans la zone 3, les véhicules munis d'une carte de résident ou de vacancier peuvent obtenir un ticket pour une journée entière, et dans la zone 4, ils peuvent stationner gratuitement, sans ticket ni limite de temps.

5.4.- Dans la zone 5, il sera possible de stationner gratuitement, sans ticket ni limite de temps.

Les camping-cars peuvent séjourner au maximum 72 heures. Cette durée ne s'applique pas aux camping-cars munis de la carte de résident correspondante.

Le stationnement des caravanes est interdit, sauf si elles sont attachées au véhicule qui les transporte (sans pieds stabilisateurs).

5.5.- Dans la zone 6, les véhicules munis d'une carte de résident seront autorisés, ainsi que ceux munis de cartes spéciales (carte de travail, carte d'enseignant, carte de permis spécial pour les corporations, etc.) pour une durée indéterminée et à titre gratuit.

Les véhicules munis d'une carte de résident ou de vacancier seront autorisés à stationner dans les cours d'école pendant les mois de juillet et août, gratuitement et sans limite de temps.

5.6.- Dans la zone 7, les véhicules de chargement et de déchargement, les véhicules appartenant à des citoyens autorisés en raison de problèmes de mobilité ou d'accessibilité et les véhicules appartenant à des corporations (de manière ponctuelle ou en cas de besoin) seront autorisés à entrer, sur demande préalable auprès de la police municipale.

Article 6.

La carte doit être placée en bas à droite du pare-brise du véhicule, de façon visible de l'extérieur. La vignette doit impérativement être apposée sur le pare-brise, sous peine de nullité.

Article 7.

La durée du stationnement ne peut excéder le temps indiqué sur le ticket de stationnement. La



Gunearen arabera aldatu egingo da iraupena. Adierazitako denbora pasa ondoren, ibilgailua dagoen sektoretik lekuz aldatu beharko da, eta bi ordu igaro arte ezingo da lehengo sektorera itzuli.

8. artikulua.

Zamalanetarako guneak horretarako erabiliko dira baimendutako ordutegian eta berezkoak dituzten baldintzetan, eta txartelik gabe aparkatu ahal izango dute. Zamalanetarako ordutegitik kanpo, gune horiek arauotan aurreikusitakoaren menpe geratuko dira.

9. artikulua.

Indarrean jarraituko dute kale bakoitzean ezarrita dauden seinale mugatzaile bereziek (gelditzeko debekua, bus geltokia, taxiak, zamalanetarako guneak, motoentzat zehaztutako guneak, ...).

10. artikulua.

Urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bateratuaren xedatutakoari jarraituz, Ordenantza honetan ezarritako aparkatzeko eta gelditzeko edozein arau urratuz gero, dagokion zehapenez gain, ibilgailua aparkalekutik kendu edo ibilgetu ahal izango da gidaria identifikatu arte.

11. artikulua

Aparkamendu tiketa erabiltzeko orduan salbuetsita daude ondorengo ibilgailuen erabiltzaileak:

- 1.- Gidaria barruan duten taxiak.
- 2.- Elbarrituen ibilgailu egokituak, behar bezala baimenduta badaude, horretarako gordetako tokietan.

Toki horiek guztiak beteta egonez gero, beste edozein aparkaleku-plazatan utzi ahal izango dira tiketik atera beharrik gabe eta denbora mugarik gabe, euren txartel propioa (elbarriena) haizetakoaren gainaldean bistan jarrita. Hala ere, ahalik eta azkarren aldatu

durée variera en fonction de la zone. Une fois écoulé le temps indiqué, le véhicule devra être retiré de la zone dans laquelle il se trouve et ne pourra y retourner que deux heures après.

Article 8.

Les zones de livraison sont utilisées pour le chargement et le déchargement pendant les heures autorisées. Aucune carte n'est nécessaire. En dehors des heures de livraison, ces zones seront soumises aux dispositions du présent règlement.

Article 9.

Les panneaux (arrêt interdit, arrêt de bus, arrêt de taxi, zones de livraison, espace pour motos, etc.) établis dans chacune des rues de la zone concernée resteront en vigueur.

Article 10.

Conformément aux dispositions du texte révisé de la loi relative à la Circulation routière, Circulation des Véhicules à Moteur et Sécurité Routière, approuvé par décret royal législatif 6/2015, du 30 octobre, une infraction aux règles de stationnement et d'arrêt établies dans la présente ordonnance, outre la sanction correspondante, peut entraîner le retrait du véhicule ou son immobilisation jusqu'à ce que l'identification du conducteur ou conductrice soit réalisée.

Article 11.

Les usagers des véhicules suivants sont exemptés de l'utilisation d'un ticket de stationnement :

- 1.- Les taxis avec chauffeur à l'intérieur.
- 2.- Les véhicules pour personnes handicapées, dûment autorisés, sur les places réservées à cet effet.

Si toutes ces places sont occupées, elles peuvent se garer sur n'importe quelle autre place de stationnement sans ticket et sans limite de temps, avec leur propre carte apposée de façon visible derrière le pare-brise. Toutefois, elles doivent changer leur

beharko dute ibilgailua eurei gordetako lekuren batera.

Nafarroa plazan (3. sektorea) aparkatzeko tiketa lortu beharko dute, dagokion tasa ordainduta.

3.- Zamaletan ari diren ibilgailuak, horretarako bereziki jarritako guneetan.

4.- Erreserba berezietan aparkatzeko baimena duten eta behar bezala identifikatuta dauden ibilgailuak.

12. artikulua.

1.- Erabilera edo tarifa murriztua duten baimenak, beti kontuan izanda Probintziako Trafiko Buruzagitzak emandako zirkulazioko baimenean agertzen den pertsona hartuko dela ibilgailuaren jabetzat, honela arautuko dira:

a) Bertakoak:

Bertakoak txartel guztiek, edozein kategoriatakoak direla ere, eman eta hurrengo urteko TAO denboraldia hasi arte izango dute balioa.

Matrikulazio berriko ibilgailuek bertakoen txartela eskuratu ahal izango dute, baldin eta ibilgailuak eta haren titularrak mota horretako txartelerako ezarritako baldintzak betetzen badituzte eta, gainera, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga Deban ordaindu bada.

Bertakoen txartelak modalitate hauek izango ditu:

a.1.- Bertakoak arrunta: txartel hau eskuratzeko aukera izango dute dagokion urteko urtarrilaren 1ean Debako Udalean erroldatuta dauden pertsonak, data horretan Debako Udalean alta emanda dauden ibilgailuentzat.

Horrez gain, bertakoen txartela lortu ahal izateko, egunean izan beharko dute zergen eta tasen ordainketa txartela jaulkitzen den unean, eta dagokion ordenantza fiskalean bertakoentzako bereizgarria lortzeko jarritako tarifa ordaindu beharko dute.

Urtean zehar ibilgailu aldaketa eginez gero eta zaharrari Udalean baja emanez gero, bertakoen txartel berria eskuratu ahal izango dute, aurrekoa ordeztuko duena.

véhicule pour une place réservée aux véhicules adaptés dès que possible.

Sur la place Nafarroa (zone 3), ils doivent obtenir un ticket de stationnement et payer le tarif correspondant.

3.- Les véhicules de livraison dans les zones aménagées à cet effet.

4.- Les véhicules dûment identifiés et autorisés à stationner sur les emplacements réservés spéciaux.

Article 12.

1.- Les autorisations ou les tarifs réduits, en tenant compte du fait que le propriétaire du véhicule est celui qui figure comme tel sur le certificat d'immatriculation du véhicule délivré par la Direction provinciale de la circulation, sont réglementés de la manière suivante :

a) Résident :

Toutes les cartes de résident, quelle que soit leur catégorie, sont valables jusqu'au début de la saison OTA de l'année qui suit celle où elles ont été délivrées.

Les véhicules nouvellement immatriculés peuvent obtenir une carte de résident à condition que le véhicule et son détenteur remplissent les conditions établies pour ce type de carte et, en outre, que la taxe sur les véhicules ait été payée à Deba.

Les modalités de la carte de résident sont les suivantes :

a.1.- Résident ordinaire : cette carte peut être obtenue par les personnes qui, au 1er janvier de l'année en cours, sont inscrites au registre de l'état civil de Deba pour les véhicules enregistrés à la mairie de Deba à cette date.

En outre, pour obtenir la carte de résident, il faut être à jour dans le paiement des impôts et des taxes au moment de l'émission de la carte et payer le tarif établi pour la vignette de résident dans l'ordonnance fiscale correspondante.

Le changement de véhicule en cours d'année et la radiation de l'ancien véhicule à la mairie permettent d'obtenir une nouvelle carte de résident qui remplacera l'ancienne.



a.2.- Bertakoak entitatea: txartel hau lortu ahalko da pertsona juridiko baten izenean agertzen diren ibilgailuentzako, baldin eta ibilgailuak eta haren erakunde titularrak egoiliar arruntaren txartela lortzeko ezarritako baldintzak betetzen badituzte eta, gainera, erakunde horrek egoitza soziala Deban badu, ordenantza honen aplikazio-eremuaren barruan.

Txartel hau dagokion tasaren truke eskuratu ahal izango da eta bertako arruntaren txartelaren baliokidea izango da eskubideetan eta erabileran.

a.3.- Bertakoak berezia: txartel hau eskuratzeko aukera izango dute Debako udalerrian erroldatuta dauden pertsonak, urtean zehar ibilgailuari beste udalerrri batean baja eman eta Debako Udalean alta ematen badiote, betiere jabeak zerga eta tasen ordainketa egunean badu txartela jaulkitzeko unean. Jabearen errolda agiria eta ibilgailuaren zerga ordainketa agiria aurkeztu beharko dira.

Horrez gain, txartel hau eskuratu ahal izango dute urtean zehar Debako udalerrian, ondorio guztiekin, erroldatzen direnek. Kasu honetan, jabearen eta ibilgailuaren errolda agiriak, biak, aurkeztu beharko dira.

Bertakoen txartel berezia bertako arruntaren txartelaren baliokidea izango da eskubideetan eta erabileran, eta indarrean dagoen tasa ordaindu beharko da txartela jaulkitzeko.

b) Udatiarrak: txartel hau eskuratu ahal izango dute txartela ematen den urteko urtarrilaren 1ean Debako udalerrian erroldaturik ez dauden eta ibilgailua bertan erroldaturik ez duten pertsona fisikoek, baina Debako udalerrian etxebizitza jabetzan edo alokairuan (hilabete gutxienez, alokairu-kontratua aurkeztuta) dutenek. Gainera, zerga nahiz tasen ordainketa egunean izan beharko dute.

Etxe jabeen 1. graduko (gurasoak, seme-alabak, ...) familiartekoen ere eskatu ahal izango

a.2.- Entité résidente : cette carte peut être obtenue pour les véhicules immatriculés au nom d'une personne morale, à condition que le véhicule et l'entité qui en est propriétaire remplissent les conditions établies pour l'obtention d'une carte de résident ordinaire et, en outre, que ladite entité soit domiciliée à Deba, dans le champ d'application de la présente ordonnance.

Pour obtenir cette carte, il faut payer la taxe établie pour cette vignette dans l'ordonnance fiscale correspondante et, en termes de droits et d'utilisation, elle est équivalente à la carte de résident ordinaire.

a.3- Résident spécial : Cette carte peut être obtenue par les personnes inscrites à la mairie de Deba, pour les véhicules qui ont été radiés dans une autre municipalité et inscrits à la mairie de Deba en cours d'année, à condition que le propriétaire soit à jour dans le paiement des taxes et redevances au moment de l'émission de la carte. L'inscription du propriétaire et le justificatif de paiement de la taxe sur les véhicules doivent être présentés.

Cette carte peut également être obtenue par les personnes qui sont enregistrées tout au long de l'année, à tous égards, dans la commune de Deba. Dans ce cas, les documents d'immatriculation du propriétaire et du véhicule doivent être fournis.

Cette carte sera équivalente, en termes de droits et d'utilisation, à la carte de résident ordinaire, et la taxe en vigueur devra être payée pour sa délivrance.

b) Vacancier : Cette carte peut être obtenue par les personnes qui, au 1er janvier de l'année de délivrance de la carte, ne sont pas inscrites dans la commune de Deba, ni n'y ont leur véhicule immatriculé, mais qui sont propriétaires ou locataires (pour un mois au moins, sur présentation du contrat de location) d'un logement dans la commune de Deba. En outre, ils doivent être à jour dans le paiement des impôts et taxes.

La carte peut également être demandée par les parents au premier degré (pères/mères, enfants,

dute txartel hau, familia liburua (lehen orrialdea (ezkontideen informazioa) eta eskatzailearen izena agertzen den orrialdea), jaiotza agiria edo ahaidetasuna ziurtatzen duen beste agiriren bat aurkeztuta.

Txartel horrek dagokion urteko TAO denboraldian baino ez du balioko, indarrean dagoen tasa ordaindu beharko da txartela jaulkitzeko, eta etxebizitza bakoitzeko txartel bat eskatu ahal izango da.

c) Txartel bereziak:

c.1.- Lan txartela: txartel hau eskuratu ahal izango dute Deban erroldatuta ez dauden pertsona fisikoek, baina lana Deban, Ordenantza honen aplikazio-eremuaren barruan, egiten dutenek, indarrean dagoen tasa ordainduta.

Era berean, txartel hori eskuratu ahal izango dute Deban erroldatuta egon arren, Ordenantza honen aplikazio eremutik kanpo lan egiten duten pertsona fisikoek eta erabiltzen duten ibilgailua lan egiten duten enpresa edo entitatearen izenean agertzen bada, edo ibilgailua leasing edo renting bidez badute, indarrean dagoen tasa ordainduta.

Txartel hori "bertakoak" txartelaren baliokidea izango da eskubide eta erabilerari dagokionez, balio epea izan ezik, txartel berezi horrek dagokion urteko TAO denboraldian baino ez baitu balioko.

Kasu batean zein bestean, interesdunak berak eskatu beharko du txartela, eskaeraren zergatia justifikatuz, enpresaren ziurtagiria aurkeztuz, eta indarrean dagoen tasa ordaindu ondoren.

c.2.- Irakasle txartela: txartel hau eskuratu ahal izango dute Luzaro eskolako eta Mendata institutuko langileek, dagokion urteko apirilaren 1a baino lehenago Udalean eskaera eginda.

Txartel honek 6. sektorean aparkatzeko eskubidea emango du maiatzean, ekainean eta irailean, asteleheneetik ostiralera, 8:00etatik 18:00etara bitartean.

2.- Edozein baimenen kasuan, TAO indarrean dagoen bitartean, baimen bakoitzari dagokion baldintzetakoren bat betetzen ez bada, edo txartela iruzurrez erabiltzen bada, baimena edo

etc.) des propriétaires des logements, sur présentation du livret de famille (première page (informations sur les conjoints) et page avec le nom du demandeur), de l'acte de naissance ou d'un autre document prouvant le lien de parenté.

Cette carte ne sera valable que pendant la saison OTA de l'année au cours de laquelle elle est délivrée, la taxe en vigueur doit être payée pour sa délivrance, et une seule carte peut être demandée par logement.

c) Cartes spéciales :

c.1.- Carte de travail : cette carte peut être obtenue par les personnes qui ne sont pas enregistrées à Deba, mais qui travaillent à Deba, dans le champ d'application de la présente ordonnance, moyennant le paiement de la redevance correspondante.

Cette carte peut également être obtenue par les personnes qui sont enregistrées à Deba mais qui travaillent en dehors du champ d'application de la présente ordonnance et dont le véhicule est au nom de l'entreprise ou de l'entité pour laquelle elles fournissent leurs services, ou dont le véhicule est en leasing ou en location, moyennant le paiement de la redevance correspondante.

Cette carte est équivalente en termes de droits et d'utilisation à la carte de résident, à l'exception de la période de validité, puisqu'elle ne sera valable que pendant la saison OTA de l'année d'émission.

Dans les deux cas, la carte doit être demandée par l'intéressé, en justifiant le motif de la demande, en présentant une attestation d'emploi et après paiement de la taxe en vigueur.

c.2.- Carte d'enseignant : Cette carte peut être obtenue par les employés de l'école Luzaro et de l'école secondaire Mendata, sur demande adressée à la mairie avant le 1er avril de l'année pour laquelle la carte est demandée.

Cette carte donne le droit de stationner dans la zone 6 pendant les mois de mai, juin et septembre, du lundi au vendredi, de 8 h à 18 h.

2.- Pour toute autorisation, pendant la durée de validité de l'OTA, le non-respect de l'une des exigences correspondant à chaque autorisation ou l'utilisation frauduleuse de la carte entraîne



txartela baliorik gabe geratuko da, ezar daitekeen zehapen ekonomikoari kalterik egin gabe.

3.- Edozein txartel edo baimen berezigatik ordaindutako kopurua ez da, inola ere, itzuliko.

4.- Txartela galdu edo hondatzen bada, indarrean dagoen tasa ordaindu beharko da txartel berria jaulkitzeagatik.

5.- Baimen berezien eskaera idatziz egin beharko da Udaltzaingoan edo harrera bulegoan horretarako Udalak onartutako eskabide eredu erabilia, kasuan kasu, dagokion tasa aurrez ordainduta.

Udalak egoki deritzon baimenak eman ahal izango ditu mugatutako aparkamendu gunetarako eta dagokion aldirako.

13. artikulua. Zigor-araubidea

1. Norbaitek ordenantza honen edozein artikulua edo Alkatetzak ordenantzaren garapen gisa ematen dituen xedapenak urratzen baditu, hori trafiko eta zirkulazioko arau-haustetzat hartuko da, eta, ondorioz, zigorrak jarriko dira, legezko prozeduraren bidez.

2. Ibilgailuaren titularrak, hala eskatzen bazaio, arau-haustea egin duen gidari erantzulea zein den identifikatu behar du, eta dagokion prozedurazko tramitean obligazio hori justifikaziorik gabe betetzen ez badu, berari jarriko zaio 13.3.g) artikuluan jasotako arau-haustearen zigorra.

3. Arau-haustek:

a) Ordenantza honetan adierazitako tiket edo txartelik gabe aparkatzea.

b) Aparkatzeko tiketean agertzen den gehieneko denbora pasatzea.

c) Errotazio handiko zonan berriz aparkatzea, aparkatzeko gehieneko denbora bukatu eta bi orduko epea pasatu gabe.

l'annulation de l'autorisation ou de la carte, sans préjudice de la sanction financière qui peut être imposée.

3.- En aucun cas, le montant payé pour une carte ou un permis spécial ne sera remboursé.

4.- En cas de perte ou de détérioration de la carte, la redevance en vigueur pour l'émission de la nouvelle carte doit être payée.

5.- La demande d'autorisation spéciale doit être adressée par écrit à la police municipale ou au service d'attention aux citoyens, au moyen du formulaire de demande approuvé à cet effet par le conseil municipal, après paiement, le cas échéant, de la redevance correspondante.

La mairie peut accorder les autorisations qu'elle juge opportunes pour les zones de stationnement désignées et pour la période correspondante.

Article 13- Sanctions

1) La violation de l'un des articles de la présente ordonnance, ainsi que des dispositions émises par la mairie dans le cadre de son élaboration, est considérée comme une infraction à la réglementation de la circulation et donne lieu à l'imposition de sanctions par le biais de la procédure légale établie.

2) Le propriétaire du véhicule, quand on le lui demande, a l'obligation d'identifier le conducteur responsable de l'infraction et s'il ne respecte pas cette obligation dans le cadre de la procédure appropriée sans motif valable, il sera sanctionné en tant qu'auteur de l'infraction énoncée à l'article 13.3.g).

3) Sont considérées comme des infractions :

a) Stationner sans avoir obtenu le ticket ou la carte prévue par la présente ordonnance.

b) Dépasser la durée de stationnement indiquée sur le ticket de stationnement.

c) Repartir dans une zone de forte rotation moins de deux heures avant la fin de la durée maximale de stationnement.

d) Egoiliarrentzat gordetako gunean aparkatzea, zona horretako bizilagunen bereizgarria eduki gabe.

e) Ezgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko Europako txartela edo, hala badagokio, mugikortasun mugatuko pertsonaren bereizgarria agerian ez jartzea.

f) Nafarroa plazan (3. sektorea) aparkatzea ezinduentzako Europako aparkatze-txartelarekin, dagokion aparkaleku-tiketik gabe.

g) Arau-haustea egin duen gidari erantzulea ez identifikatzea, aurrez eskatuta ere.

h) Ordenantza honetan jasotako bereizgarria behar den moduan ez erabiltzea.

i) Bereizgarria emateko beharrezko den betebeharren bat ez betetzea, eta Udalari ez jakinaraztea (horretarako jarritako epean).

j) Bereizgarrien titularrek ez betetzea helbide-aldaketa edo ibilgailuaren eskualdatzea jakinarazteko obligazioa.

k) Bereizgarria jaso zuen ibilgailuaren jabetza eskualdatu ondoren ere, haren bereizgarria erabiltzea.

l) Tiket edo bereizgarri manipulatu, faltsu, baliogabetu edo desegokia erabiltzea.

m) Ordenantza honetan adierazitako beste edozein baldintza ez betetzea

Alkatetzak edo, hala badagokio, eskuordetzaz ariko den organoak onar dezake trafikoaren arloan egiten diren arau-hauste ohikoenen taula bat, bai eta aplikatu daitezkeen zehapenenak ere. Dena den, arau-hauste horiek modulatu ahal izango dira, gertatzen diren inguruabarren arabera.

14. artikulua. Zigorak eta araubide-neurriak

1. Arau-hausteak zehatuko dira urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bateratuaren V. tituluaren eta gainerako lege-xedapenetan, xedapen osagarrietan eta udal-ordenantzetan ezarritakoaren arabera.

d) Stationner dans une zone réservée aux résidents sans être en possession de la vignette.

e) Ne pas apposer de façon visible la carte européenne de stationnement pour personnes handicapées ou, le cas échéant, la vignette de personne handicapée.

f) Stationner sur la place de Nafarroa (zone 3) avec une carte européenne de stationnement pour personnes handicapées sans le ticket de stationnement correspondant.

g) Ne pas identifier le conducteur responsable de l'infraction, après avoir été invité à le faire.

h) Ne pas utiliser correctement les différentes vignettes prévues par la présente ordonnance.

i) Le non-respect de l'une des exigences en vertu desquelles la vignette a été accordée, sans en informer la mairie dans le délai prévu à cet effet.

j) Le non-respect par le détenteur de la vignette de l'obligation de notifier le changement d'adresse ou le transfert du véhicule.

k) L'utilisation de la vignette après le transfert de propriété du véhicule pour lequel elle a été octroyée.

l) L'utilisation d'un ticket ou d'une vignette trafiquée, falsifiée, annulée, périmée ou inadaptée.

m) Le non-respect de toute autre condition indiquée dans la présente ordonnance.

La mairie ou, le cas échéant, l'organe agissant par délégation peut approuver un tableau des infractions au code de la route les plus courantes, ainsi que les sanctions applicables, sans préjudice de la modulation dont celles-ci peuvent faire l'objet en raison des circonstances.

Article 14. Sanctions et mesures réglementaires

1. Les infractions sont sanctionnées conformément aux dispositions du titre V du texte remanié de la loi sur la circulation, la circulation des véhicules à moteur et la sécurité routière, approuvée par le décret royal législatif 6/2015, du 30 octobre, ainsi qu'aux autres dispositions légales, complémentaires et aux arrêtés municipaux.



2. 13.3 artikulua a), b), c), d), e), f), g), eta m) puntuetan tipifikatutako arau-haustek 60 euroekin zehatuko dira

3. 13.3 artikulua h), i), j), k), eta l) puntuetan tipifikatutako arau-haustek 90 euroekin zehatuko dira, eta bereizgarria baliogabetuko da. Horretaz gain, k) eta l) puntuetan jasotako kasuetan, beste bereizgarri berri bat lortzeko ezintasuna ezarri ahal izango da, gehienez ere bi (2) urteko eperako. Hori guztia, Ordenantzaren tarifetan ezarritako zenbatekoak eta sor daitezkeen tasak premiamendu-bidez ere ordaintzea eskatzeari kalterik egin gabe.

4. Aurreko bi paragrafoetan adierazitako zenbatekoak Alkatetzak edo, hala badagokio, eskuordetzaz ariko den organoak berrikusi eta eguneratu ahal izango ditu.

5. Artikulu honetako 2. eta 3. puntuetan adierazitako zehapen ekonomikoei kalterik egin gabe, 13.3 artikuluan tipifikatutako arau-haustek oztopo larria dira trafikoa eta aparkatzeko zerbitzu publikoa antolatu eta hobetzeko, eta, beraz, ibilgailua ibilgetu edota kendu eta horretarako prestatutako lekuan utzi ahal izango dira.

6. Ibilgailua ibilgetzeak edota bide publikotik kendu eta ibilgailua aurreko atalean aipatutako gordailuan egoteak ordenantza fiskalen xedatutako tasak sorraraziko dituzte, eta ibilgailua jaso aurretik tasa horiek guztiak ordaindu beharko dira.

7. Ordaindutako aparkaldi-denbora gaintuz gero, salaketa baliogabetzeko tiketa lortu ahal izango da tiketari adierazitako amaiera-orduaren ondorengo bi (2) orduetan, dagokion tasa ordainduta, eta betiere, ordainketa ibilgailua ibilgetu edo erretiratu baino lehen egiten bada.

Salaketa baliogabetu eta dagokion tasa ordaindu egin ahalko da tiketa ematen duten makinetan edo Debako Udaltzaingoa bulegoan.

2. Les infractions incriminées aux points a), b), c), d), e), f), g) et m) de l'article 13.3 seront sanctionnées à hauteur de 60 euros.

3. Les infractions incriminées aux points h), i), j), k), et l) de l'article 13.3 seront sanctionnées d'une amende de 90 euros et de l'annulation de la vignette. Dans les cas visés aux points k) et l), l'impossibilité d'obtenir une nouvelle vignette pendant une période pouvant aller jusqu'à deux (2) ans peut également être imposée, sans préjudice de l'exigence du paiement, y compris par voie d'exécution, des montants correspondants établis dans les tarifs de l'ordonnance, ainsi que des droits qui peuvent en découler.

4. Les montants indiqués dans les deux alinéas précédents peuvent être révisés et mis à jour par la mairie ou, le cas échéant, par l'organe agissant par délégation.

5. Sans préjudice des sanctions pécuniaires indiquées aux points 2 et 3 du présent article, les infractions visées à l'article 13.3 constituent un obstacle grave à l'organisation et à l'amélioration de la circulation et du service public de stationnement, et peuvent donc donner lieu à l'immobilisation du véhicule et/ou à son retrait et sa mise en fourrière dans le lieu prévu à cet effet.

6. L'immobilisation et/ou le retrait du véhicule de la voie publique, ainsi que le séjour du véhicule dans les lieux mentionnés dans l'alinéa précédent, donnent lieu à la perception des droits établis dans l'arrêté fiscal, qui doivent être acquittés intégralement avant la récupération du véhicule.

7. En cas de dépassement du temps de stationnement payé, un ticket d'annulation de l'amende peut être obtenu pendant les deux (2) heures qui suivent l'heure de fin indiquée sur le ticket, moyennant le paiement de la taxe correspondante, à condition que le paiement soit effectué avant l'immobilisation ou le retrait du véhicule.

L'annulation de l'amende et le paiement de la taxe correspondante peuvent être effectués aux horodateurs ou au bureau de la police municipale de Deba.

Azken xedapen bakarra.

Ordenantza hau indarrean sartuko da bere testu osoa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean.

Seule disposition finale.

La présente ordonnance entrera en vigueur le jour suivant la publication de son texte intégral au BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa (Journal officiel du Gipuzkoa).